

# *Euskal Literatura XX. mendean*

Jon Kortazar

25  
urte



25 años de  
*Literatura vasca, siglo XX*

25 ans de  
*Littérature basque, XX<sup>e</sup> siècle*

EUSKAL LITERATURA XX. MENDEAN

Jon Kortazar

**25**  
urte

© JON KORTAZAR

© EUSKALTZAININDIA

© XABIER ETXANIZ ETA KIRMEN URIBE (BERAIEN TESTUENA) ♦  
DISEINU ETA MAKETAZIOA: TIPOS MÓVILES ♦ MOLDIZTEGIA: RGM, S.A.

Azaleko argazkia: Jose Sampedro ♦  
Euskal Idazleen Argazkiak: Zaldi Ero ♦

Azken argazkia: Daniel Mordzinski

Euskarazko testuen orrazketa: HIZBEA  
(Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen  
Behatokia zerbitzua)

Lege Gordailua: BI - 878 - 2015

# *Euskal Literatura XX. mendean*

**Jon Kortazar**

## **Hogeita bost urte**

**Veinticinco años**

***Literatura vasca, siglo XX***

**Vingt cinq ans**

***Littérature basque, XX<sup>ème</sup> siècle***

2015eko  
urriaren 2-16  
Euskaltzaindiaren  
Egoitza  
Plaza Berria  
Bilbo

2015eko  
azaroaren 16-24  
Carlos Santamaría  
Zentroa  
UPV-EHU  
Donostiako Campusa

2015eko  
abenduaren 1-30  
Jose Manuel  
Etxeita  
Liburutegia  
Mundaka



Jon Kortazar (Mundaka, 1955)

# 7

Gure letretan murgildurik

Xabier Etxaniz

# 13

Kritikariaren eskua

Kirmen Uribe

# 21

Gaztelerazko testuak

[Textos en castellano]

# 26

Frantsesezko testuak.

[Textos en francés]

# Literatura Vasca Siglo XX

Jon Kortazar



**ETOR**

*Literatura Vasca Siglo XX*, liburuaren azala. Etor. Donostia, 1990.

## GURE LETRETAN MURGILDURIK

Xabier Etxaniz



Joxe Arratibel zenak zera zioen, gehiago aldatu dela mundu bera jaio zenetik, XX. mende hasieran, aurreko bi mila urtetan baino. Literatura arloan ere antzeko zerbaite zioen Jon Casenave irakasleak *Euskal literaturaren historiarengako historia* lanean inguruko kulturretan bi mendetan eginiko garapena euskal kulturan berrogeita hamar urtetan egin dugula adieraztean.

Euskal kulturak, eta literaturak bereziki, ikaragarritzko aurrerapausoak egin ditu azken hamarkadetan; alde horretatik oraina ulertzeko eta geroa prestatzeko, iragana ezagutu behar dugu. Hots, literaturaren historia izan behar dugu. Aitzitik duela bispahiru hamarkada arte euskal literaturaren historiak idazleen eta obren zerrendak izan dira nagusiki; lan handiak eta argigarriak baina literaturaren balioa oso gutxitan aztertzen zuten lanak. Testuinguru horretan kokatu behar da duela 25 urte argitaraturiko *Literatura vasca. Siglo XX liburua*; berritzalea eta euskal literaturaren lehenengo historia modernoa. Izan ere 1980ko hamarkadan euskal munduan aldaketa handiak eman ziren, gizarte mailan, politikan,

hizkuntza arloan..., literaturaren munduan sistema bat osatzen hasten da lehen aldiz eta kritikan «bihurgune bat gertatu zen» Jon Casenaveren hitzetan, inguruko kulturetako teoriak erakarriak izan baitziren gure artera eta «itxura berri bat eman zion euskal literaturaren azterketari».

Testuinguru horretan, 1990ean, Jon Kortazar irakasleak, aurretik egindako lan biografikoak, soziologikoak eta filologikoak aintzat hartuta, euskal literaturaren historia argitaratu zuen, XX. mendekoa eta irizpide literarioetan oinarrituriko kritikaren bidez: «ez direlako helburu euskaraz argitaratutako liburu guztiak, baizik eta, tradizioz nolabaiteko kalitate estetikoa aitortu izan zaienak». Eta alde horretatik esan genezake Jon Kortazarren lana mugarrria dela euskal literaturaren historiografian; haren aurretik plazaraturiko lan gehienetan euskaraz idatzitako —sortu nahi itzulitako— guztiak eta egile guztiak jasotzea eta zabaltzea bazen helburu, harrezkero irizpide literarioa, kalitate literarioa duten obrak («kalitate hori betiere erlatiboa izan arren», liburugilearen hitzetan) aztertu ohi dira azken 25 urteotan plazaratu diren literatura historia gehienetan.

XX. mendean zehar euskal literatura nola hasi den eraikitzen ikusi ahal izan dugu, gerra aurreko saio eta idazle bakanen lanetik, 1980ko hamarkadan izaniko boom literarioraino; tartean gerraren ondorengo



Jon Kortazar, *Euskal Literatura*, liburuaren azala. Etor-Ostoa. Donostia. 2002. Argitalpen egokitua.

Jon Kortazar, *Literatura Vasca. Siglo XX*. Deia. Bilbao. 1994. Liburuaren azala.

Esteban Urkiaga «Lauaxeta», *Bide barrijak. Verdes*. Bilbao. 1931.



Lizardi



Orixe



Lauaxeta

zapalkuntza eta 1960ko hamarkadatik aurrera eginiko ekarpen ausart, berri eta interesgarriak daudelarik. Eta hori guztia, idazlanen azterketen bidez, garaiko egoera islatuz, ikus daiteke Jon Kortazarren lan honetan.

Resurrección María Azkueren eta Sabino Aranaren pentsamenduetatik Txomin Agirre, Aitzol, Lizardi, Lauaxeta, Orixe... eta berriagoak diren Lekuona, Iratzeder, Gandiaga bezalako idazleak ezagutzeako, haien ekarpen eta garrantzia z jabetzeko saiakera dugu historia hau, baina hortik aurrera ere orain gure artean ari diren sortzaileak, Atxaga, Cano, Iturralde, Meabe, Jimenez eta beste asko, ageri zaizkigu. Hau da, gure iragan hurbiletik orainera eginiko bidaia da *Euskal literatura XX. mendean* liburua; gaur egungo euskal literatura ulertzeko oinarrizko ekarpena.

Eta literaturaren historia obra guztiak bezala bi hartzaile izan ohi ditu lan honek. Alde batetik, Euskal

Herri barrukoak, gure literatura ezagutu eta aurrera egiteko erabili duena, literaturaren irakurzaletasuna eta gure klasikoak ezagutzeko baliatu duen irakurlea. Baino, irakurle horren ondoan ere Euskal Herri-tik kanto ere gure literaturaren berri izan dezaten, ikuspegi orokor batetik abiatuta euskal idazle, haien obra eta euskal kulturara hurbiltzeko irakurri duten horiek daude; liburu hau gaztelaniaz eta georgieraz argitaratua izateaz gain, ingelesez, alemanez, katalanez eta beste hainbat hizkuntzatan argitaraturiko lanen oinarri izan baita. Eta alde horretatik euskal literaturak gure mugetatik kantpo duen eta izan duen zabalkundearen arrazoietako bat.

25 urte pasa dira liburu hau plazaratu zenetik eta, gure letretan ohikoa denaren kontra, liburuak oraindik ere interesa erakartzen du eta bizirik dago. Ba al dago liburu bati buruz hori baino komentario hoberik?

Jon Kortazar  
EUSKAL  
LITERATURA  
XX. MENDEAN

Le Tres Soños - Los Tres Sueños - Les Tres Suenos

PRAMES



Jon Kortazar, *Euskal Literatura XX. mendean.*  
Pramés. Zaragoza, 2000, 2003, 2015.

## KRITIKARIAREN ESKUA

Kirmen Uribe

1965ean, Jorge Luis Borges eta Adolfo Bioy Casares idazleek kritikatzeko era berri bat planteatu zuten jendaurrean emandako hitzaldi batean. Beraien us-tez, kritikarik onena izango da kritikatzen duen liburua, hasi eta buka, oso-osorik berridazten duen hura. Esandakoak gogorarazi zidan egile biek idatzia zuten ipuin labur bat, non enperadoreak munduko maparik zehatzena egiteko agindu zuen, mundua bera bezain handia zen mapa, hain zuzen. Aburuak, gehiegikeria eta probokazioa izateaz gain, egia txiki bat ere badu gordean.

Izan ere, zein da kritikariaren lana? Soilik gustuko dituen liburuei buruz hitz egin eta besteei buruz isiltzea, Audenek aholkatzen zuen moduan? Irakurle arruntak maite duen liburuaren arrakasta erlatibiza tzea? Juje orojakilearena egitea?

Baztertzen duen kritika baino nik nahiago dut isilean dagoen zer edo zer argitzen duena, argia jartzen duena idazleak berak ere ilunpean duen zerbaitetan; ezen idazleok ez baitugu dena kontzientziatik idazten, badaude beste indar batzuk sormenean parte hartzen dutenak, intuizioa bera, edo burmuinak bere kabuz

eta berez sortzen dituen loturak. Batzuetan, idazleak berak ere ez daki zergatik idatzi duen izkiriatu duen hura. Beste argentinar batek, Alberto Mangelek dio idazlanik onenak direla irakurketa bakoitzean ñabardura berri bat eskaintzen diguten horiek, arestiko irakurraldietan nabaritu ez dugun zerbait erakusten digutenak. Ari da Danteri buruz, ari da Joyceri buruz, ari da Kafkari buruz.

Liburua, behin kalean, irakurlearena da, idazlea ahaztu egiten da hartaz, bere gogoa hurrengo egitasmoak hartzen baitu. Bada, orduan egiten du liburuak bere benetako bidea. Kritikariaren lana da, niretzat, irakurleari eta bere buruari bidea argitzea, lokarriak bilatzea gainontzeko testuekin, liburuak ingurumarian izan duen eragina aztertzea. Galderak egitea, bestelako itaunak sorraraziko dituzten galderak. Eta horrela etengabe. Baino, orobat, literaturarekiko maitasuna eta berotasuna zabaltzea, azaltzea zerk egiten duen liburu bat on —akatsak ateratzea baino zeregin zailagoa, benaz—, literatura-sorkuntzari berari bide ematea. Azkenean, Borgesek eta Casaresek zioten bezala, liburua berriz idaztea.

Esan beharrik ez da oso nekeza dela kritikariaren eginbeharra, sarritan deserosoa eta gogaikarria kritikariarentzat berarentzat, baina erabat beharrezkoa. Begirunea zor zaio kritikariari. Badiot, idazle baten lanak hiru zutabe dituela: lan sendo bat, irakurle




## Egungo euskal poesiaren historia

Jon Kortazar

(zuzendaria)

Anan Alberdi  
Ur Apalategi  
Mikel Arregi  
Mikel Etxezabala  
Iñaki Egurza  
Ángel Forn  
Iñaki Gómez  
Lorendo Otxagip  
Alvaro Rabell  
Iñaki Rekalde  
Fernández Rojo




## Egungo euskal nobela eta zinema

Jon Kortazar

(zuzendaria)


Ur Apalategi  
Mikel Arregi  
Mikel Etxezabala  
Harkaitz Casas  
Iñaki Egurza  
Ángel Forn  
Jon Kortazar  
Alvaro Rabell  
Iñaki Rekalde  
Fernández Rojo



Jon Kortazar (zuzendaria), *Egungo euskal poesiaren historia*. UPV-EHU Argitalpen Zerbitzua. Leioa, 2009.

Jon Kortazar (zuzendaria), *Egungo euskal nobela eta zinema*. UPV-EHU Argitalpen Zerbitzua. Leioa, 2009.

Jon Kortazar, *Luma eta Lurra*. BBK Fundazioa-Labayru. Bilbao, 1997.



Quimera aldizkaria. Literatura Vasca Actual, 2003.

Ínsula aldizkaria. Monografikoa egungo euskal literaturaz, 2013.


Reduccions aldizkaria. Euskal poesiaren antologíaz, 1984. Irudia Txillidarena da.

andana eta aparatu-kritikoa. Hiru osagai horietatik bat faltan izanez gero gaitz izango du aurrera egiteko idazleak. Hori dela eta izan behar dugu idazleok esker oneko kritikariarekin, denbora hartzen duelako gure lanak aztertzeko, bere bizitza propioko astia. Baino ez horregatik bakarrik.

Esan ohi da kritika atzetik doala, idazlea doala beti urrats bat aurretik eta kritikaria haren atzetik, haren lorratzei jarraiki; beste era batera esanda, idazleak liburuak idazten ditu, literaturari bideak zabaltzen dizkio eta kritikariak soilik irakurri eta iritzia ematen du. Horixe da maiz pentsatu izan dena. Dena dela, ez nator bat. Ez, kritikak lan berri baten idazketan ere parte hartzen du. Gaztetan, besteen artean, Jon Kortazarren liburuak irakurri eta gero hasi nintzen idazten. Gaur egunean ere, liburu berri bati ekiteko, gustuko dut teoria irakurtzea, literatur kritika aztertzea, fikziozko liburuak oinarri sendo bat izan dezan, zerbaite berria esateko, ibilitako bideak ez errepikatzeko. Beraz, kritikaria ez doa beti idazlearen atzetik. Aurretik eta atzetik doa, eskutik heltzen dio idazleari ezkerretik eta eskubitik, umetxo bat esku banatatik heldu eta aireratzen duten gurasoak legez, esanez: Eup!

Niri behintzat hori gertatu izan zait Jon Kortazarren lanekin.

GAURKO EUSKAL  
LITERATURAREN ZENBAIT  
IDAZLE OROIGARRI





Bernardo Atxaga / Kirmen Uribe /  
Tere Irastortza / Xabier Lete /  
Ramón Saizarbitoria / Harkaitz  
Cano / Anjel Lertxundi / Bitoriano  
Gandiaga / Arantxa Urretabizkaia /  
Juan Mari Lekuona



Jon Kortazar

**VISIÓN ACTUAL  
DE LAS LETRAS VASCAS**

Xabier Etxaniz

Decía el conocido folklorista vasco Joxe Arratibel que el mundo ha cambiado más desde que nació él a comienzos del siglo XX que en los dos mil años anteriores. Algo parecido indica el profesor Jon Casenave en su estudio sobre la historiografía de la literatura vasca, *Euskal literaturaren historiaren historia*, cuando dice que lo que han evolucionado las culturas de nuestro alrededor a lo largo de los últimos dos siglos lo hemos realizado nosotros en estos cincuenta años.

La cultura vasca, y la literatura en particular, ha evolucionado a pasos agigantados en las últimas décadas; por ello, para comprender mejor la actualidad y preparar el futuro, es esencial que conozcamos el pasado. Es decir, necesitamos conocer la historia de nuestra literatura. Pero hasta hace prácticamente tres décadas casi todas las historias de la literatura vasca han sido una recopilación de autores y obras; obras interesantes y clarificadoras de la situación de la producción de libros en euskara, pero donde no predominaba el estudio literario de dichas obras. En este contexto debemos analizar la publicación hace 25 años del estudio *Literatura vasca. Siglo XX*, una obra innovadora y la primera historia moderna de la literatura vasca. Efectivamente, en la década de 1980 se produjeron toda una serie de cambios, algunos radicales, en el País Vasco, a nivel social, político, lingüístico,... comenzaron a crearse las bases de un sistema literario y la crítica literaria se dio una transformación en palabras de Jean Casenave; hicimos nuestras las teorías literarias de nuestro entorno y se procedió a una nueva crítica literaria.

En ese contexto, en 1990, el profesor Jon Kortazar, teniendo también en cuenta los anteriores estudios biográficos y filológicos,

publica una historia de la literatura vasca, una historia del siglo XX y basada en criterios literarios, en la que no se tienen en cuenta todas las obras publicadas en lengua vasca, sino aquellas que la tradición les ha reconocido un valor estético. Este cambio de criterio supone que la obra de Jon Kortazar sea un hito en la historiografía de la literatura vasca; en la práctica totalidad de las obras precedentes se pretendía recopilar y dar a conocer toda la producción en euskara —tanto creación como traducción—, pero a partir de esta historia el criterio de que sean obras de calidad literaria (aunque como reconoce el profesor Kortazar, este es un término relativo) ha predominado en las historias de la literatura publicadas en estos 25 años.

En esta historia de la literatura vasca en el siglo XX podemos apreciar cómo se ha ido creando una literatura vasca a lo largo de dicho siglo, desde los inicios e intentos de autores sueltos anteriores a la guerra, hasta el boom de la literatura vasca de la década de 1980, pasando por la opresión de la posguerra civil y los intentos y producciones atrevidas, innovadoras e interesantes de las décadas de 1960 y 1970. Todo ello a través del estudios de las obras y reflejando la situación de la época.

En la obra podemos conocer desde las ideas y pensamientos de Resurrección María Azkue y Sabino Arana, hasta autores como Txomin Agirre, Aitzol, Lizardi, Lauaxeta, Orix... o los posteriores Lekuona, Iratzeder y Gandiaga, sus aportaciones y la importancia que tienen en la historia de la literatura vasca; al igual que sucede con autores contemporáneos como Atxaga, Cano, Iturralde, Meabe, Jimenez, etc. Es decir, *Literatura vasca. Siglo XX* es un viaje desde nuestro pasado cercano a la actualidad, una obra esencial para conocer y comprender la literatura vasca actual.

Y como todas las obras de historia de la literatura, este libro también tiene dos receptores distintos. Por una parte el receptor vasco, que analiza la obra para conocer y avanzar en la literatura vasca,

que busca textos literarios y conocer los clásicos de su literatura. Pero junto a ese receptor está el que desde otras culturas y otras realidades desea acercarse a la literatura vasca, quien partiendo de una visión general se pueda acercar a esos autores, esas obras concretas de las letras vascas; porque este libro además de publicarse en castellano y georgiano, ha servido de base a otros estudios sobre la literatura publicados en inglés, alemán, catalán,... por el profesor Kortazar. Por lo que podemos indicar, sin lugar a dudas, que esta historia ha contribuido a la difusión de la literatura vasca fuera de nuestras fronteras.

Han pasado 25 años desde que se publicó esta obra y, en contra de lo más común en nuestro entorno, *Literatura vasca. Siglo XX* continúa siendo una obra viva y que despierta interés. ¿Se puede decir algo mejor sobre un libro?

## LA MANO DEL CRÍTICO

Kirmen Uribe

En 1965, Jorge Luis Borges y Adolfo Bioy Casares, en una charla pública, plantearon una nueva forma de hacer crítica. En su opinión, la mejor crítica es aquella que reescribe enteramente la obra que está analizando. Esto me hizo recordar un breve cuento firmado por ambos escritores, donde el emperador había ordenado realizar el mapa más exacto del mundo, un mapa que fuera tan grande como el propio mundo. Aun siendo grandilocuente y provocativo, el planteamiento encierra una pequeña verdad.

Al fin y al cabo, ¿cuál es la labor del crítico? ¿Sólo hablar de los libros que le gustan y omitir los que no son de su agrado, tal y como planteaba Auden? ¿Relativizar el éxito de los libros que han tenido aceptación entre el público general? ¿Hacer de juez sabelotodo?

Prefiero la crítica que aporta luz sobre aspectos oscuros o indefinidos a aquella que desecha o arrincona; aquella que saca a la luz aspectos que el autor ha dejado en la penumbra. Porque los escritores no escribimos todo de forma consciente, hay otros factores que influyen en la creación, la misma intuición, o nexos que el cerebro crea de forma autónoma. Hay veces que ni el mismo escritor sabe por qué ha escrito algo de una determinada manera. Otro argentino, Alberto Mangel, dice que los mejores relatos son aquellos que en cada lectura nos aportan un matiz distinto, un aspecto no apreciado en la lectura previa. Cita a Dante, a Joyce, a Kafka.

El libro, ya en la calle, es del lector. El escritor se olvida de él, debido a que ya está inmerso en el siguiente proyecto. Y es entonces cuando el libro traza su verdadero camino. La labor del crítico es allanar el camino al lector, encontrar nexos con otros textos, contextualizar la obra en su entorno. Hacer preguntas, que a su vez derivarán en otros interrogantes. Y así continuamente. En resumen,

fomentar el aprecio y la calidez hacia la literatura, explicar qué hace bueno a un libro —tarea más compleja que sacar faltas— y abrir camino a la creación literaria. En definitiva, como decían Borges y Casares, escribir de nuevo el libro.

No hace falta decir que la labor del crítico es compleja, a menudo incómoda y tediosa para el propio crítico, pero del todo necesaria. Hay que estimar dicha labor. El trabajo de un escritor tiene tres pilares fundamentales: un trabajo sólido, un público y un aparato crítico. Si falta uno solo de esos tres componentes el escritor lo va a tener complicado. Y es por ello que los escritores debemos ser agradecidos con el crítico, porque se toma un tiempo para analizar nuestro trabajo, tiempo que resta de su vida. Pero no sólo por eso.

Se suele decir que la crítica va por detrás, que el escritor va un paso por delante y el crítico sigue sus huellas. Dicho de otra manera, el escritor escribe libros, abre caminos a la literatura, y el crítico sólo lee y da su opinión. Es lo que se ha pensado a menudo, pero no estoy de acuerdo. No, el crítico también participa en la redacción de un nuevo trabajo. En mi juventud, empecé a escribir después de leer, entre otros, a Jon Kortazar. Hoy en día, antes de empezar con un nuevo libro, me gusta leer la teoría y estudiar la crítica literaria, para que el libro de ficción tenga una base sólida, que sea innovador, que no repita los caminos ya andados. Por lo tanto, el crítico no va siempre detrás del escritor. Anda por detrás y por delante, le toma la mano al escritor por la izquierda y por la derecha, como los padres y madres que cogen al niño de ambas manos y le impulsan al aire al grito de eup!

A mí, por lo menos, es lo que me ha pasado con los trabajos de Jon Kortazar.

IMMERSION DANS  
LES LETTRES BASQUES

Xabier Etxaniz

Le célèbre folkloriste basque Joxe Arratibel disait que le monde avait beaucoup plus changé depuis sa naissance au début du XX<sup>ème</sup> siècle qu'au cours des deux mille ans précédents. C'est à peu près ce qu'affirme le professeur Jon Casenave dans son étude sur l'histioriographie de la littérature basque, *Euskal literaturaren historia*, lorsqu'il dit que l'évolution des cultures qui nous entourent au cours des deux derniers siècles s'est faite chez nous en cinquante ans.

La culture basque, et la littérature en particulier, a évolué à pas de géants au cours des dernières décennies ; pourtant, pour mieux comprendre l'actualité et préparer l'avenir il est essentiel que nous connaissons le passé. C'est-à-dire que nous avons besoin de connaître l'histoire de notre littérature. Mais il y a trente ans encore quasiment toutes les histoires de la littérature basque n'étaient qu'une liste d'auteurs et d'oeuvres ; oeuvres intéressantes qui apportaient un éclairage sur la production de livres en basque mais dans lesquels peu de place était donnée à l'étude littéraire des oeuvres en question. C'est dans ce contexte que nous devons analyser l'étude intitulée *Literatura vasca, Siglo XX*, publiée il y a 25 ans, oeuvre novatrice et première histoire moderne de la littérature basque. Effectivement, c'est au cours des années 80 qu'eut lieu toute une série de changements, changements radicaux pour certains au Pays Basque, au niveau social, politique, linguistique,... où furent posées les premières bases d'un système littéraire et où la critique littéraire subit une transformation, selon Jean Casenave ; nous fimes nôtres les théories littéraires en vigueur et fut instaurée une nouvelle forme de critique littéraire.

C'est dans ce contexte qu'en 1990, le professeur Jon Kortazar, tenant compte également des études biographiques et philologiques

antérieures, publie une histoire de la littérature basque, une histoire du XX<sup>ème</sup> siècle, basée sur des critères littéraires, dans laquelle on ne prend pas en compte toutes les oeuvres publiées en langue basque mais seulement celles à qui la tradition a reconnu une valeur esthétique. Ce changement de critère suppose que l'oeuvre de Jon Kortazar est un repère dans l'historiographie de la littérature basque ; dans la quasi-totalité des oeuvres précédentes on se bornait à compiler et à faire connaître toute la production en langue basque –qu'il s'agisse de création ou de traduction–, mais à partir de cette histoire le critère fixant la qualité littéraire d'une oeuvre (bien que, comme le reconnaît le professeur Kortazar, il s'agisse d'un terme relatif) a prédominé dans les histoires de la littérature publiées au cours de ces 25 années.

Dans cette histoire de la littérature basque au XX<sup>ème</sup> siècle, nous pouvons observer comment s'est façonnée la littérature basque au cours de ce siècle, depuis ses débuts et les tentatives d'auteurs isolés d'avant-guerre, jusqu'au boom de la littérature basque des années 1980, en passant par la période d'oppression après la guerre civile et les tentatives audacieuses, novatrices et intéressantes de la période 1960-1970. Tout cela étant fait à travers l'étude des oeuvres et en se basant sur le contexte de l'époque.

Cette oeuvre nous permet de connaître les idées et pensées de Resurrección María Azkue et de Sabino Arana, mais également d'auteurs comme Txomin Agirre, Aitzol, Lizardi, Lauaxeta, Orix... ou encore d'auteurs plus récents comme Lekuona, Iratzeder et Gandiaga, leurs apports et l'importance qu'ils ont dans l'histoire de la littérature basque ; c'est également le cas avec des auteurs contemporains comme Atxaga, Cano, Iturralde, Meabe, Jimenez, etc. L'oeuvre intitulée *Literatura vasca, Siglo XX* est donc un voyage depuis notre passé récent jusqu'à nos jours, il s'agit d'une oeuvre essentielle dans la connaissance et la compréhension de la littérature basque actuelle.

Et, comme toutes les oeuvres traitant d'histoire de la littérature, ce livre a aussi deux receveurs distincts. D'une part le receveur basque qui analyse l'oeuvre pour connaître et progresser dans la littérature basque, qui recherche des textes littéraires, et aussi pour connaître les classiques de sa littérature. Mais à côté de ce receveur se trouve celui qui, depuis d'autres cultures et d'autres réalités, souhaite s'intéresser à la littérature basque, celui qui, partant d'une vision générale, fait connaissance des ces auteurs, de ces œuvres concrètes des lettres basques ; car ce livre est non seulement publié en espagnol et en géorgien mais il a également servi de base à d'autres études sur la littérature publiées en anglais, allemand, catalan,... par le professeur Kortazar. Nous pouvons affirmer sans l'ombre d'un doute que cette histoire a contribué à la diffusion de la littérature basque hors de nos frontières.

25 années ont passé depuis la publication de cette oeuvre, et étonnamment *Literatura vasca, Siglo XX* est toujours une oeuvre bien vivante qui suscite un grand intérêt. Peut-on faire plus grand compliment sur un livre ?

## LA MAIN DU CRITIQUE

Kirmen Uribe

En 1965, Jorge Luis Borges et Adolfo Bioy Casares, lors d'un débat public, présentèrent une nouvelle forme de critique. Selon eux, la meilleure critique est celle qui réécrit entièrement l'oeuvre qui est analysée. Cela me rappela un petit conte signé par ces deux auteurs dans lequel l'empereur avait ordonné que soit réalisée la carte la plus exacte du monde, une carte qui serait aussi grande que le monde lui-même. Bien que cela soit pompeux et provocateur, cet énoncé revêt une certaine vérité.

En fin de compte, quel est le travail du critique ? Doit-il seulement parler des livres qu'il aime et omettre ceux qui ne lui plaisent pas, comme le suggérait Auden ? Relativiser le succès que des livres ont connu auprès d'un large public ? Se prendre pour « Monsieur je-sais-tout » ?

Je préfère la critique qui éclaire d'un jour nouveau des aspects sombres ou indéfinis à celle qui rejette ou met au rebut, je préfère celle qui met en lumière des aspects que l'auteur a laissés dans la pénombre. Parce que nous, les écrivains, n'écrivons pas tout de façon consciente, il existe d'autres facteurs dans le processus de création, l'intuition mais aussi des liens que crée le cerveau de manière autonome. Il arrive parfois que l'auteur lui-même ne sache pas pourquoi il a écrit une chose d'une façon déterminée. Un autre Argentin, Alberto Mangel, dit que les meilleurs récits sont ceux qui à chaque lecture nous apportent une nuance différente, un aspect qui n'avait pas été perçu lors de la première lecture. Il cite Dante, Joyce, Kafka.

Le livre, lorsque il est publié, appartient au lecteur. L'auteur en vient à l'oublier dès lors qu'il est déjà plongé dans un nouveau projet. C'est alors que le livre trace son véritable chemin. Le travail du critique est d'aplanir le chemin du lecteur, de trouver des liens avec

d'autres textes, de contextualiser l'oeuvre dans son environnement. Poser des questions qui elles-mêmes amèneront à d'autres interrogations. Et ainsi indéfiniment. En résumé, encourager la considération et le goût pour la littérature, expliquer ce qui fait qu'un livre est de qualité — tâche plus complexe que celle de relever les fautes — et ouvrir un chemin vers la création littéraire. En définitive, comme le disaient Borges et Casares, réécrire le livre.

Il ne faut pas dire que le travail du critique est complexe, il est souvent inconfortable et ennuyeux pour le critique lui-même, mais il est nécessaire. Ce travail doit être apprécié. Le travail d'un écrivain comprend trois piliers fondamentaux : un travail solide, un public et un appareil critique. Si l'une de ces composantes fait défaut, la tâche de l'auteur va être difficile. C'est pour cette raison que nous, les écrivains, devons être reconnaissants envers le critique, car il consacre du temps à l'analyse de notre travail, temps qu'il prend à sa propre vie. Mais pas seulement pour cela.

On dit souvent que le critique marche à la suite de l'auteur. L'écrivain fait un pas en avant et le critique suit sa trace. Autrement dit, l'écrivain écrit des livres, ouvre des chemins à la littérature, et le critique ne fait que lire et donner son opinion. C'est ce que l'on a souvent pensé, mais je ne suis pas d'accord. Le critique participe lui aussi à la rédaction d'un nouveau travail. Dans ma jeunesse, j'ai commencé à écrire après avoir lu, entre autres, Jon Kortazar. Aujourd'hui, avant de commencer un nouveau livre, j'aime lire la théorie et étudier la critique littéraire, afin que l'oeuvre de fiction ait une base solide, qu'elle soit novatrice, qu'elle ne reprenne pas des chemins déjà empruntés. Par conséquent, le critique ne marche pas toujours derrière l'auteur. Il marche à sa suite et il le précède, il prend la main de l'auteur et le guide vers la gauche ou vers la droite, comme les parents qui prennent l'enfant chacun par une main et le soulèvent dans les airs en faisant hop !

C'est du moins ce qui m'est arrivé avec les travaux de Jon Kortazar.



Jon Kortazarren *Literatura Vasca. Siglo XX / Euskal Literatura XX. mendearen liburuaren 25.* urtea gogoratzan duen liburuxka hau 2015ean argitaratu zen, Jose Manuel Etxeita (Mundaka, 1841-1915) idazlearen heriotzaren urteurrenean.



